

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LAN- ETA INGURUMEN-ARRISKUEN PREBENTZIOA MAKINERIA ETA TRESNERIA INDUSTRIALAREN MUNTAKETA- ETA MANTENTZE-LANETAN (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0630		
Lanbide-arloa	Instalazioa eta mantentze-lanak		
Lanbide-eremua	Makineria eta ekipo industrialak.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen muntaketaren plangintza, kudeaketa, mantentze-lanak eta ikuskapena egitea	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen instalazioen muntaketa planifikatzea eta ikuskatzea	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ekoizpen-lerro automatizatuetao makineriaren mekanizazio- eta muntaketa-lanak lantokian	Iraupena	70
	Ekoizpen-lerro automatizatuetao makineriaren muntaketa-lana planifikatzea		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1282_3 MAKINERIA, TRESNERIA INDUSTRIAL ETA EKOIZPEN-LERRO AUTOMATIZATUEN LANTOKIKO INSTALAZIOA PLANIFIKATZEA ETA IKUSKATZEA gaitasun-ataleko LB6 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Instalazio eta ekipoetako manipulazio-jardueretarako prebentzio- eta segurtasun-neurriak (sektoreko enpresetako segurtasun-planetan jasotzen direnak) aztertzea.

EI1.1 Instalazioak eta ekipoak manipulatuak eragin ditzakeen arriskuekin lotutako prebentzio- eta segurtasun-arauak zehaztea.

EI1.2 Arrisku-faktoreak eta arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.

EI1.3 Produktu kutsatzaileekin egiten diren jardueretarako ingurumen-babeseko eskakizunak identifikatzea.

EI1.4 Lan-eremuen eskakizunak eta haien prestatzeko prozedurak deskribatzea, eta laneko arrisku espezifikoak eta haien zuzentzeko neurriak zehaztea.

EI1.5 Gerta litezkeen istripuetarako lehen laguntzaren eskakizunak aztertzea.

EI1.6 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.

A2: Segurtasun-plana aplikatzea, eta, horretarako, enpresako prebentzio- eta segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak aztertzea.

EI2.1 Detektatzen diren arriskuen aurrean prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzea, barne harturik norbera babesteko ekipoak eta babes kolektibokoak hautatzea, egoera onean izatea eta behar bezala erabiltzea.

EI2.2 Jarduera-protokoloak aplikatzea gerta litezkeen larrialdietan, kasurako:

- Zeregin espezifikoek arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
- Detektatutako disfunczio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
- Larrialdietan eraikinak ebakutzea, ezarritako prozedurei jarraitzea.

EI2.3 Gerta litezkeen istripuetan, oinarritzko osasun-neurriak eta lehen laguntzako teknikak aplikatzea eta istripua izan dutenak eramatea.

A3: Instalazioak lantokian muntatzean eta ekoizpen-lerro automatizatuen mantentze-lanak egitean erabiltzen diren segurtasun-baliabideak eta -ekipoak egon litezkeen arriskuekin lotzea.

EI3.1 Babes pertsonaleko arropa eta ekipo ohikoenen ezaugarriak eta erabilera deskribatzea.

EI3.2 Suteak itzaltzeko sistema-motak zerrendatzea, haien ezaugarriak zehaztea, eta haietako bakoitzaren ezaugarriak eta erabilerak deskribatzea.

EI3.3 Arauzko seinale eta alarmen ezaugarriak eta helburua deskribatzea, arrisku-lekuak eta/edo larrialdi-egoerak adierazteko.

EI3.4 Sendaketak egiteko, lehen laguntza eskaintzeko eta istripua izan dutenak lekualdatzeko ekipoen eta baliabideen ezaugarriak eta erabilerak deskribatzea.

EI3.5 Hainbat lan-inguruneraren deskribapena abiapuntu harturik:

- Segurtasun- eta babes-baliabide eta -ekipoen espezififikazioak zehaztea.
- Dokumentazio teknikoaren prestatzea, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, eta, han, informazio hau sartzea: larrialdi-ekipoen, seinaleen, alarmen eta irteera-puntuen kokapena.

Edukiak

1. Laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarritzko kontzeptuak

- Lana eta osasuna.
- Lan-arriskuak.
- Arrisku-faktoreak.
- Lanetik eratorritako ondorioak eta kalteak:
 - Lan-istripua.
 - Gaixotasun profesionala.
 - Lanetik eratorritako beste patologia batzuk.
 - Ondorio ekonomikoak eta funtzionamendukoak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarritzko arau-esparrua:
 - Lan-arriskuak prebenitzeko legea.
 - Prebentzio-zerbitzuen araudia.
 - Irismena eta oinarri juridikoak.
 - Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko direktibak.
- Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten erakunde publikoak:
 - Estatuko erakundeak.
 - Autonomia-erkidego mailako erakundeak.

2. Arrisku orokorrak eta haien prebentzioa

- Tresna eta ekipoak erabiltzeak dituen arriskuak.
- Sistemak eta instalazioak manipulatzeko dituen arriskuak.
- Kargen garraioak eta biltegiak dituzten arriskuak.
- Lan-inguruneari lotutako arriskuak:
 - Agente fisiko, kimiko edo biologikoekiko esposizioa.
 - Sua.
- Lan-kargatik eratorritako arriskuak:
 - Neke fisikoa.
 - Neke mentala.
 - Lanean pozik ez egotea.
- Langileen segurtasunaren eta osasunaren babesa:
 - Babes kolektiboa.
 - Banakako babesa.

3. Larrialdietan eta ebakuazioetan egin beharrekoak

- Istripu-motak.
- Istripua izan duenaren lehen mailako ebaluazioa.
- Lehen laguntza.
- Sorospena.
- Larrialdi-egoerak.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Larrialdietako jarduerarako informazio osagarria.

4. Makineria eta tresneria industrialaren muntaketa- eta mantentze-lanetan erabiltzen diren segurtasun-baliabideak, -ekipoak eta -teknikak

- Makina eta ekipo industrialen muntaketako arrisku ohikoenak.
- Instalazioen mantentze-lanetako arrisku ohikoenak.
- Babesak instalazioetako makinetan, ekipoetan eta sareetan.
- Ekipoak mugitzeko teknika.
- Norbera babesteko arropak eta ekipoak.
- Ingurumena babesteko arauak:
 - Energia-aurrezpena.
 - Kutsadura atmosferikoa.
 - Zarata kontrolatzea eta kentzea.
 - Hondakinen tratamendua eta kudeaketa.
- Lantokian suteak itzaltzeko sistemak: motak, Ezaugarriak. Bakoitzaren propietateak eta erabilera. Suteen kontrako babesari dagozkion arauak.
- Seinaleak: Larrialdiko ekipoen kokapena. Irteera-puntuak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen muntaketaren plangintza, kudeaketa, mantentze-lanak eta ikuskapena egitea